


OTXANDIO



OTXANDIOKO EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Idurre Alonso Amezua
Iñigo Arteatx Uriarte

AURKIBIDEA**1. Oinarrizko datuak 3**

1.1. Kokapen geografikoa.....	
1.2. Demografia.....	
1.2.1. Eskualdeko eta udalerriko demografia adinaren arabera (2001).....	
1.2.2. Biztanleriaren hazkundera (1981-2001).....	
1.2.3. Migrazio mugimenduak Otxandion.....	
1.3. Biztanleria lan sektorearen arabera (2001).....	
1.3.1. Establezimenduak.....	
1.4. Aisialdi elkarteak.....	

2. Demografia eta euskara 8

2.1. Arratia Nerbioiko eta Otxandioko biztanleriaren euskararen ezagutza.....	8
2.2. Euskararen ezagutzaren eboluzioa Otxandion adin multzoka (1986-2001).....	9
2.3. Arratia Nerbioiko eta Otxandioko biztanle euskaldunak.....	10
2.4. Eskualdeko biztanleen hizkuntza gaitasuna adinaren arabera.....	14
2.5. Hizkuntza ezagutzaren bilakaera 5 urtetik gorako biztanleetan.....	15
2.6. Udalerriko 5 urtetik gorako biztanleak hizkuntza jabekuntzaren arabera.....	16
2.7. Hizkuntza gaitasunaren bilakaera 5 urtetik gorako biztanleetan.....	17
2.8. Udalerriko euskaldunak hizkuntza jabekuntzaren arabera.....	18
2.9. Hizkuntza ohituren bilakaera 5 urtetik gorako biztanleetan.....	19
2.10. Hizkuntza gaitasuna eta hizkuntza ohiturak 5 urtetik gorako biztanleetan.....	20
2.11. Euskararen kale erabilera Otxandion (2001).....	21

3. Euskara ondorengoetaratzea 23

3.1. Etxeko hizkuntza erabilera.....	
--------------------------------------	--

3.1.1. Etxeko hizkuntza erabilera 5 urtetik gorako biztanleetan.....	
3.1.2. Etxeko hizkuntza erabilera familiako euskaldunak %25> direnean.....	
3.1.3. Etxeko hizkuntza erabilera familiako euskaldunak %25-44 direnean.....	
3.1.4. Etxeko hizkuntza erabilera familiako euskaldunak %45-59 direnean.....	
3.1.5. Etxeko hizkuntza erabilera familiako euskaldunak %60-80 direnean.....	
3.1.6. Etxeko hizkuntza erabilera familiako euskaldunak %80< direnean.....	
3.1.7. Etxeko erabileraren tipologia hiztun ereduaren arabera.....	
3.2. Irakaskuntza.....	
3.2.1. Haur hezkuntzaren bilakaera (1983/84-2003/04).....	
3.2.2. Lehenengo Hezkuntzaren bilakaera A eta D ereduetan (1983-2004).....	
3.2.3. Helduen euskalduntze eta alfabetatzea.....	

4. Administrazioa eta euskara	32
4.1. Udalbatzaren osaera: alderdi politiko ordezkaritza.....	32
4.2. Derrigortasun indizea eta hizkuntza eskakizunen betetze maila.....	32
4.3. Euskarari bideratutako aurrekontuak.....	33
4.4. Euskarari bideratutako azpiegitura: Euskara Batzordea.....	33
5. Euskararen elikadura: komunikabideak	34
6. AMIA analisia	35
6.1. Ahuleziak.....	
6.2. Mehatxuak.....	
6.3. Indar guneak.....	
6.4. Aukerak.....	
7. Ondorioak	37
8. Glosarioa	40
9. Bibliografia	41

1. OINARRIZKO DATUAK

1.1. Kokapen geografikoa

Biztanle kopurua: 1017

Eskualdea: Arratia Nerbioi

Lurraldea: Bizkaia




Otxandio hiribildu historikoa Bizkaiko hegoaldean dago kokatuta, Arratia Nerbioi eskualdean. Iparraldean Abadiño, hegoaldean Legutio, ekialdean Aramaio eta mendebaldean Ubide, Dima eta Zeanuri ditu mugakide. Eskualdea hamalau herrik osatzen dute (Otxandioz gain, Arrankudiaga, Ugao, Arakaldo, Zeberio, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza, Orozko, Dima, Zeanuri, Ubide eta Urduña). Arratia Nerbioi eskualdeak 21.262 biztanle ditu Eustaten 2001eko datuen arabera. Horietatik 1.017 bizi dira Otxandion (%4,8). 1991tik 2001era biztanle kopurua murriztuz joan da (%8,54ko jaitsiera). Joera hori aldatzea espero da datozen urteotan eraikuntza bidean dauden etxebizitza berriak direla medio (kontuan hartu behar da 2001etik aurrera 135 etxebizitza eraiki direla).

1.2. Demografia

1.2.1. Eskualdeko eta udalerriko demografia adinaren arabera (2001)


haurrak		gazteak		helduak		zaharrak		orotara	
kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
94	9,2	128	12,6	542	53,2	255	25	1019	100

Udalerriko biztanleria adin taldeka (2001)



■ haurrak ■ gazteak ■ helduak ■ zaharrak

Otxandioko biztanleriaren egitura adinaren arabera (2001)



EAEen orokorra den joerari jarraituz (Eusko Jaurlaritzak, 2005), biztanleriaren zahartzea dugu Otxandion. Datu positibo gisa aipa daiteke 1998-2001ean haurren jaiotza tasak gora egin zuela eta horren erakusgarri dugu 0-4 urte bitarteko kopurua 5-9 urte bitarteko haurren kopuruari gailentzea.

1.2.2. Biztanleriaren hazkundera (1981-2001)


	1981	2001	hazkundera	hazkundera (%)
Herrira heldutakoak	1180	977	-203	-17,2

Hogei urteko epealdian Otxandiok biztanleen %17 galdu du. Aurreko ataleko datuetan oinarrituta, argi dago hazkundera negatibo horren arrazoia biztanleriaren zahartzean dugula eta ez migrazio mugimenduetan. Dena dela, aurreko puntuan azaldu dugun bezala, datozen urteotan herria haztea espero da.

1.2.3. Migrazio mugimenduak Otxandion

	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
Herrira heldutakoak	1	0	0	1	6	1	0	4	4	3	7
Herritik alde egindakoak	0	5	12	4	2	2	2	2	3	3	5

Migrazio mugimenduak




1991tik 2001era arteko datuak hartzen baditugu kontuan, oro har, ikusten da herrira heldutakoaren kopurua alde egindakoena baino baxuagoa dela (27 eta 40 biztanle, hurrenez hurren). Hala ere, 1996tik aurrera egoera orekatuagoa da (etorritakoak orotara 19; joandakoak 17)¹. Hortaz, 1991-2001 bitartean etorritakoak biztanleriaren %2,65 dira. Dena dela, lehen aipatutako politika urbanistikoa dela eta, abian da hainbat etxebizitza berriren eraikuntza. Horrek inmigrazioaren gorakada ekarriko duela aurreikus daiteke. Etorriaren tipologia zehatzik ez izan arren, berez, kopurua ez da hizkuntzaren bilakaeran eragitekoa bestekoa.

¹ Eustaten 2003ko datuen arabera, urte horretan herritik emigratutakoak 44 ziren eta 28 kanpotik etorritakoak.

1.3. Biztanleria lan sektorearen arabera (2001)

	Sektoreko langile kopurua	Sektoreko langile kopuruaren %
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	13	3
Arrantza, akuikultura	0	0
Ateratze industriak	1	0,2
Manufaktura industria	226	51,5
Elektrizitatea, gasa eta ura ekoiztu eta banatzea	1	0,2
Eraikuntza	14	3,2
Merkataritza eta konponketa	39	8,9
Ostalaritza	27	6,15
Garraioa, bilketa eta komunikazioak	13	3
Finantza bitartekaritza	6	1,4
Onibar jarduerak eta alokairukoak; enpresa zerbitzuak	12	2,7
Herri administrazioa	22	5
Hezkuntza	23	5,2
Osasun eta albaitaritza jarduerak, gizarte zerbitzua	28	6,4
Bestelako gizarte zerbitzuak eta norbanakoentzako zerbitzuak	5	1,1
Etxeko langileak dituzten etxebizitzak	9	2,05
Lurraldez kanpoko erakundeak	0	0
Orotara	439	100

Biztanleria lan sektorearen arabera (2001)



Otxandion lan egiten dutenen erdiak baino gehiago manufaktura industrian aritzen dira. Manufakturan, ostalaritzan, merkataritzan eta osasuna eta gizarte zerbitzuetan ari direnak batuta, lanean ari den biztanleriaren %73 osatzen dute. Hortaz, lan munduari eragingo dion plan estrategikoa diseinatzekotan, horiek izango lirateke lehentasunezko esparruak.

1.3.1. Establezimenduak

Ikusi dugun bezala, merkataritzak eta ostalaritzak pisu garrantzitsua dauka herriko biztanleriaren ogibidean (%15 guztira). Kontuan hartu behar da mila biztanle inguruko herria izateko jarduera ekonomiko garrantzitsua biltzen dutela sektore horiek ondoko datuetan islatzen den moduan.

Saltokiak	11
Ostalaritza	9
Lantegiak	6
Nekazaritza turismoa	1
Beste batzuk (aurrezki kutxa, gasolindegia, ile apaindegiak)	4
Guztira	31

	Merkataritza	Ostalaritza	Orotara
Langile guztiak euskaldunak	11	5	16
Langile guztiak erdaldunak	2	2	4
Langile euskaldun eta erdaldunak (ugazaba euskalduna)	1	2	3
Langile euskaldun eta erdaldunak (ugazaba erdalduna)	2	1	3

Horiez gain, ekainaren 15etik irailaren 15era irekitzen den igerilekua dago. Igerileku publikoa da eta Udalak esleitzen du haren ustiaketa. Instalazio horiek igerilekuaz gain, taberna bat ere badute epealdi berean irekitzen dena.



1.4. Aisialdi elkarteak

Otxandion zortzi aisialdi elkarte daude. Siadecok 2004an Durangoko merinaldearen aisialdi elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko eskaintzetatik zein lehenesten zuten aztertu zuen. Haur eta gazteen aisialdi elkarteek euskaraz idatzitako material egokiak izateari, begirale euskaldunen poltsa sortzeari eta euskara ikasteko diru laguntzak eskaintzeari eman zioten lehentasuna. Gainerako taldeek, euskara ikasteko diru laguntzak lehenetsi zituzten, euskaraz idatzitako material egokiak izatearekin batera.

2. DEMOGRAFIA ETA EUSKARA

2.1. Arratia Nerbioiko eta Otxandioko biztanleriaren euskararen ezagutza

	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak		Orotara	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Arratia Nerbioi	11641	56,16	3532	17	5556	26,8	20729	100
Otxandio	742	74,7	114	11,5	137	13,8	993	100




Bizkaiko egoera linguistikoarekin alderatuta oro har, Arratia Nerbioi eskualdearen egoera osasuntsuagoa da: Bizkaiko biztanleetatik %25 baino ez dira euskaldunak; Arratia Nerbioi eskualdean, berriz, portzentaje hori %56ra iristen da (hau da, Bizkaikoa halako bi). Otxandioren egoera eskualdeko batez bestekoa baino hobea da (biztanleen %75 dira euskaldunak, hots, hiru laurden, Bizkaiko laurdenaren aurrean).

Ondoren, Otxandioko biztanleen perfil linguistikoa aztertuko dugu adin multzoka.

2.2. Euskararen ezagutzaren eboluzioa Otxandion adin multzoka (1986-2001)

Haurrak


		1986		1991		1996		2001	
		kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Haurrak	euskaldunak	184	85,6	141	89,2	92	91,1	70	85,4
	ia euskaldunak	10	4,9	15	9,5	9	8,9	8	9,8
	erdaldunak	21	9,8	2	1,3	0	0	4	4,9
Orotara		215	100	158	100	101	100	82	100



Hamalau urtetik beherako biztanleetan jaiotze tasaren beherakada da nabarmenena 1986tik aurrerako kopuruak aztertuta. 1985-1986 ikasturteetik aurrera, Otxandioko eskolan D eredia baino ez izateak ondorio garbia izan du haur erdaldunen beherakadan. Bestalde, pentsatzekoa da ia euskaldunen eta erdaldunen kopurua inmigrazioaren ondorio direla.

Gazteak


		1986		1991		1996		2001	
		kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Gazteak	euskaldunak	141	70,9	139	80,3	154	95,7	121	91,7
	ia euskaldunak	12	6	27	15,6	6	3,7	4	3,
	erdaldunak	46	23,1	7	4	1	0,6	7	5,3
Orotara		199	100	173	100	161	100	132	100



Adin talde honetan ez da nabarmentzen jaiotze tasaren beherakada, baina bai eskolan D eredia soilik egotea.

Helduak


		1986		1991		1996		2001	
		kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Heldua k	euskaldunak	439	71,4	419	69,7	374	66,3	368	67,6
	ia euskaldunak	17	2,8	84	14	96	17	95	17,5
	erdaldunak	159	25,9	98	16,3	94	16,7	81	14,9
Orotara		615	100	601	100	564	100	544	100

Helduak

Adin tarte honetan nabarmentzekoa da ia euskaldunek izan duten gorakada. Gorakada hori erdaldunen beherakadarekin dator bat. Beraz, ikusten da guztiz erdaldunak ziren batzuk ia euskaldun bihurtu zirela epe horretan.

Zaharrak



		1986		1991		1996		2001	
		kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Zaharrak	euskaldunak	141	94	150	91,5	179	85,6	183	77,9
	ia euskaldunak	1	0,7	4	2,4	8	3,8	7	3
	erdaldunak	8	5,3	10	6,1	22	10,5	45	19,1
Orotara		150	100	164	100	209	100	235	100

Zaharrak

Adin tarte honetan ikusten den erdaldunen gorakada bi faktorekin lotuta dago: batetik, biztanleriaren zahartzea (hau da, lehen heldu erdaldunak zirenak orain zahar erdaldunen multzoan egotea); bestetik, Otxandiora bizitzera etorritakoen parte esanguratsua erdalduna izatea. Hala ere, arraroa litzateke inmigrazioak halako eragina izatea adin tarte honetako biztanleriarengan. Bestalde, heldu erdaldunen beherakada zahar erdaldunen gorakada baino dezente baxuagoa da. Azalpena, hortaz, heldu erdaldunen zahartzea konpentsatuko lukeen heldu erdaldunen inmigrazioan izan dezakegu.

2.3. Arratia Nerbioiko eta Otxandioko biztanle euskaldunak

	Alfabetatuak		Erdizka alfabetatuak		Alfabetatu gabeak		Orotara	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Arratia Nerbioi	8415	72,3	2567	22,05	659	5,65	11641	100
Otxandio	403	54,3	229	30,9	110	14,8	742	100




Datu hauek islatzen dute Otxandion Arratia Nerbioiko eskualdean baino euskaldun gehiago izan arren proportzionalki, datuak guztiz aldatzen direla euskaldun alfabetatuez ari garenean. Gogora dezagun Arratia Nerbioi eskualdean %73 direla euskaldunak edo ia euskaldunak; Otxandion, berriz, %86koa dugu kopuru hori. Alfabetatze datuei erreparatuta, ordea, %94 dira alfabetatuak edo erdizka alfabetatuak Arratia Nerbioin eta kopuru hori %85era jaisten da Otxandion. Kopuru horien baitan garrantzitsua izan daiteke erabat alfabetatutakoen kopurua bereiztea, euskarazko idatzizko komunikazioa haiek bermatzen baitute.

Erabat alfabetatutakoen kopuruak are gehiago nabarmentzen ditu eremu bien arteko aldeak: Arratia Nerbioi eskualdean %72 daude alfabetatuta eta Otxandion, ostera, %54 (%18ko alde, beraz, batetik bestera).

Alfabetizazioari buruzko datuen irakurketarako behar-beharrezkoa iruditzen zaigu bi aldagai izatea kontuan: biztanleriaren adina eta euskaldun berrien kopurua. Izan ere, zenbat eta biztanleria zaharragoa, gutxiago izango dira ikasketak euskaraz burutu ahal izan dituztenak. Bestalde, euskaldun berria izateak euskaldun alfabetatua izatea bermatzen du.

2.4. Eskualdeko biztanleen hizkuntz gaitasuna adinaren arabera


2001



2.5. Hizkuntz ezagutzaren bilakaera 5 urtetik gorako biztanleetan

	1981		1986		1991		1996		2001	
	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Elebidunak	785	66,5	885	77,15	828	77,6	793	77,4	733	75
Elebidun hartzailleak	120	10,2	34	3	91	8,5	86	8,4	94	9,6
Erdaldun elebakarrak	275	23,3	228	19,9	148	13,9	146	14,2	150	15,35
Orotara	1180	100	1147	100	1067	100	1025	100	977	100

Hizkuntzaren ezagutza maila




Hogei urteko bilakaerari erreparatuta, datuak onak dira: %8,5 igo da elebidunen kopurua eta %7,95 jaitsi erdaldun elebakarrena. Dena dela, 1981 eta 1991 bitartean elebidunen kopuruak %11,1eko igoera izan zuen eta erdaldun elebakarren kopurua erdira jaitsi zen (275etik 148ra), biztanleria osoaren baitan %9,4 eginez behera. Euskararen bilakaera positibo horrek ez du jarraipenik izan hurrengo hamar urteetan, erdaldun elebakarretan ez da beherakadarik nabaritzen eta elebidun hartzailleetan ere ez. Aldiz, elebidunen kopuruak behera egin du nabarmen (95 pertsona 1991tik 2001 bitartean). Kopurua 5 urtetik gorako biztanleen beherakadarekin bat dator (90 pertsona). Hortaz, proportzionalki, elebidunek indarra galdu dute urte horietan (%77,6tik %75era).

2.6. Udalerriko bost urtetik gorako biztanleak hizkuntz jabekuntzaren arabera

	1986		1991		1996		2001	
	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Euskaldun zaharrak	756	65,9	715	67	683	66,6	575	58,85
Jatorrizko elebidunak	54	4,7	60	5,6	54	5,3	86	8,8
Euskaldun berriak	75	6,5	53	5	56	5,5	72	7,4
Partzialki euskaldun berriak	19	1,65	61	5,7	52	5,1	72	7,4
Partzialki erdaldunduak	15	1,3	30	2,8	34	3,3	22	2,25
Gutziz erdaldunduak	12	1,05	6	0,55	6	0,6	9	0,9
Erdaldun zaharrak	216	18,8	142	13,3	140	13,65	141	14,4
Orotara	1147	100	1067	100	1025	100	977	100

Hizkuntz jabekuntza



1986tik 1991ra euskaldun zaharren portzentajearen igoera apala dugu (%65,9tik %67ra), nahiz eta kopuru osoak jaitsi. Hurrengo bost urteetan portzentajea mantendu egin da (%0,4ko jaitsiera), baina 1996 eta 2001 bitartean inoizkorik datu txarrenak ditugu: %66,6tik %58,85era. Jatorrizko elebidunetan portzentajearen igoera xumea baina gero eta azkarragoa sumatzen da: %4,7 1986an; %5,6 1991n; %5,3 1996an; %8,8 2001ean. Euskaldun berrietan igoera apalagoa izan da, 1986 eta 2001eko datuak alderatzen baditugu, tartean gorabeherak izan baditu ere. Partzialki euskaldun berrien errepresentazioaren kopuru zein ehunekoen aldetik esanguratsua dugu: 1986an 19 izatetik (%1,65) 2001ean 72 izatera iritsi dira (biztanleriaren %7,4). Gutziz erdaldunduei dagokienez, datuak ez dira nahikoa esanguratsuek ondorioz ateratzeko, baina orain arte beste esparru batzuetan ere ikusitako joera bera antzematen da: 1986tik 1991ra erdarak indarra galtzen du eta hortik aurrera berrindartuz doa ehunekoei


dagokienez. Erdaldun zaharren kasuan ere datu oso esanguratsuak ditugu: 1986 eta 1991 artean beherakada nabarmena ikusten da bai kopuru aldetik (216tik 142ra) eta bai portzentaje aldetik (%18,8tik %13,3ra). Hortik aurrera, ordea, kopurua aldatu ez arren proportzionalki duten pisua gehituz doa, modu apalean bada ere (%13,3tik %14,4ra hamar urtean).

2.7. Hizkuntz gaitasunaren bilakaera 5 urtetik gorako biztanleetan

Aurreko atalean ikusitakoaren arabera, hizkuntz gaitasunaren arabera hiru multzo osatuko ditugu: euskara gaitasun altua duten hiztunena (euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak, euskaldun berriak eta partzialki erdaldunduak); euskara gaitasun baxua duten hiztunena (partzialki euskaldun berriak); euskara gaitasunik ez duten hiztunena (guztiz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak).

	1986		1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara gaitasun altua	900	78,5	858	80,4	827	80,7	755	77,3
Euskara gaitasun baxua	19	1,65	61	5,7	52	5,1	72	7,35
Euskara gaitasunik ez	228	19,9	148	13,9	146	14,2	150	15,35
Orotara	1147	100	1067	100	1025	100	977	100

Hizkuntz gaitasuna




1986an euskara gaitasun altua zutenen portzentajea %78,5koa izanik eta hurrengo hamarkadan %2,2ko igoera izanda ere, 2001ean aztertzen ari garen 15 urteetako daturik kaskarrenak aurkitzen ditugu %3,4ko jaitsierarekin (hau da, 1996tik 2001erako tartean aurreko hamar urteetan lortutako aurrerapena gainditzen duen galera gertatu zen). Euskara gaitasun baxua dutenen kopurua nabarmen hazi da 15 urteko epe

horretan (%5,7) eta euskara gaitasunik ez dutenen proportzioak ere berdintsu egin du behera (%4,55). Euskara gaitasunik ez dutenen beherakada honetan euskaldun berrien eta partzialki euskaldun berriak direnen igoera ikusten da. Hala ere, euskara gaitasunik ez dutenen beheranzko joera asko moteldu zen 1991n eta guztiz eten 1996an. Hurrengo bost urteetan igoera txiki bat antzematen da. Hala ere, garrantzitsua da kopuruetan ez ezik portzentajeetan ere neurtzea joera hori, horrek herritarren hizkuntz ohituretan izan dezakeen eraginagatik; eta ikuspegi horretatik, euskara gaitasunik ez dutenen pisuak gora egin du (%1,45) 1991-2001 bitartean; beraz, oso garrantzitsua izango dira datozen urteetarako aurreikusten den inmigrazioaren hizkuntz ohiturak. Interesgarria izan daiteke hizkuntz gaitasunaren joera hizkuntz ohiturekin alderatzea.

2.8. Udalerriko euskaldunak hizkuntz jabekuntzaren arabera

	Euskaldun zaharrak		Jatorrizko elebidunak		Euskaldun berriak		Partzialki euskaldun berriak		Orotara	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Arratia Nerbioi	8259	60,8	1163	8,6	1987	14,6	2182	16,05	1359	100
Otxandio	575	71,4	86	10,7	72	8,9	72	8,9	805	100

Otxandio




Hortaz, Arratia Nerbioiko hiru biztanletik bat euskaldun berria dugu (alfabetatua ezinbestez); Otxandioko kasuan kopuru hori ez da bosten batera iristen. Datu hauen irakurketatik ondoriozta daiteke Otxandioko biztanleen artean alfabetatutakoen portzentajea eskualdekoa baino baxuagoa izatearen arrazoi nagusia jatorriz euskaldunak gehiago izatea eta aldi berean, biztanleria zaharragoa izatean datzala. Euskaraz alfabetatutakoen portzentaje (erlatiboki) baxua oztopo izan daiteke hein batean idatziz burutzen den euskarazko komunikaziorako. Aldi berean, ordea, datu hauek erakusten dute ahozko komunikazioa bultzatzeko potentzial handiko eremua dugula Otxandio.

2.9. Hizkuntz ohituren bilakaera 5 urtetik gorako biztanleetan

	1986		1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	776	67,65	730	68,4	710	69,3	593	60,7
Euskara eta gaztelania	61	5,3	81	7,6	67	6,5	99	10,1
Gaztelania	301	26,2	252	23,6	248	24,2	282	28,9
Besterik	9	0,8	4	0,4	0	0	3	0,3
Orotara	1147	100	1067	100	1025	100	977	100

Lehen hizkuntza




Jaitsiera nabarmena ikusten da gaztelania lehen hizkuntza dutenen artean 1986 eta 1991 bitartean (biztanleriaren %26,2tik %23,6ra). Tarte horretan euskara lehen hizkuntzatzat zutenen portzentajeak gora egin zuen %67,65etik %68,4ra (kopuru osoak behera egin izan arren). 1991 eta 1996 bitartean euskara lehen hizkuntza dutenen kopurua maila berean hazi zen (%68,4tik %69,3ra). Baina aldi berean, gaztelania lehenengo hizkuntzatzat zutenen portzentajeak ere gorakada xumea nabaritu zuen (%23,6tik %24,2ra). Igoera bi horien atzean hizkuntza biak maila berean erabiltzen zituztenen beherakada dago (%7,6tik %6,5era). 1996 eta 2001 artean egoerak aldaketa esanguratsua izan du: euskara lehen hizkuntzatzat dutenen kopurua modu ikusgarrian jaitsi da (%69,3tik %60,7ra). Gaztelania lehenengo hizkuntzatzat dutenen ehunekoaren hazkundera, berriz, azeleratu egin da %24,2tik %28,9ra pasatuz. Euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen dutenen ehunekoak ere gora egin du %6,5etik %10,1era. Hortaz, hizkuntz ordezkapena ikusten da lehen euskararako joera zuten hainbat euskaldunetan.

Orain arte ikusi ditugun hizkuntz ohituren eta bilakaeraren arabera, datuak kezkatzeko modukoak dira 1996tik aurrera hizkuntz ohituretan hartutako norabideagatik. Izan ere, ama hizkuntza erdara dutenen kopuru osoa 37 pertsonatan hazi da (erdaldun zaharrak, euskaldun berriak eta partzialki euskaldun berriak). Hala ere, gaztelania lehenengo hizkuntzatzat dutenen kopurua 34 pertsonatan hazi da, eta horri

euskara eta gaztelania maila berean erabiltzen dutenena gehitu behar zaio (beste 32 pertsonako hazkunde). Hori guztia hazkunde demografiko negatiboa izanik. Hortaz, argi dago hizkuntz ohiturak ez daudela ama hizkuntzarekin lotuta ezinbestez eta jatorriz euskaldun direnen artean gaztelaniarako joera kezagarria azaltzen dela.

2.10. Hizkuntz gaitasuna eta hizkuntz ohiturak 5 urtetik gorako biztanleetan

Hizkuntz gaitasuna eta hizkuntz ohiturak




Hizkuntz gaitasunari buruzko datuek hizkuntz ohiturekin konbinatuta erakusten diguten egoera guztiz kezagarria da: 2001eko datuek erakusten digute hizkuntz gaitasun altua biztanleen %77,3k daukatela, eta hala ere, %60,7k soilik du euskara lehen hizkuntza. Lehen hizkuntzatzat euskara eta gaztelania dituztenen kopuruak gehituta, egoera zertxobait hobetzen da itxuraz, baina arestian esan dugun bezala, gaztelania zein euskara biak lehen hizkuntzatzat dituztenen gorakada euskara lehen hizkuntzatzat zutenen artean izandako hiztunen galeran kokatu behar da (izan ere, gaztelania lehen hizkuntzatzat dutenak ere gehitu egin dira, kopuru aldetik zein ehunekotan). Azkenik, kontuan hartu behar dugu euskara gaitasun baxua duten kopuruak gora egin badu ere, hori soilik uler daitekeela datu positibo bezala ikasten dauden seinale bada. Izan ere, horiek nekez izango dute euskararako joerarik eguneroko jardunean.

2.11. Euskararen kale erabilera Otxandion (2001)

Otxandioko Euskara Batzordeak, herriko zenbait kultur talderekin elkarlanean, euskararen erabilerrari buruzko kale neurketa egin zuen 2001eko martxoan. Erabilitako teknika behaketa zuzenarena izan zen; neurketa hiru egunez herriko ibilbide ezberdinetan eta ordutegi ezberdinetan egin zen. Behatutako elkarrizketak 689 izan ziren. Azterketa horren emaitzak izango dira ondoren aurkeztu eta aztertuko ditugunak.

	Erdaraz		Euskaraz		Orotara	
	maiztasuna	adin berekoen %	maiztasuna	adin berekoen %	maiztasuna	adin berekoen %
Haurrak	102	58,5	72	41,5	174	100
Gazteak	77	93,5	5	6,5	82	100
Helduak	319	84,5	58	15,5	377	100
Zaharrak	39	69,5	17	30,5	56	100
Orotara	537	77,9	152	22,1	689	100


Euskararen kale erabilera Otxandion ehunekotan



Adin tarte guztietan da nagusi gaztelaniaren erabilera. Gaztelaniaren igoera nabarmenena haur eta gazteen artean sumatzen da, gazteen euskararen erabilera ez da eta %7ra ere iristen. Hortik aurrerako adin multzoetan ere hamarretik hiru dira, kasurik onenean, euskaraz aritzen direnak.


Ondoko taulan arestian euskararen ezagutzari buruz emandako datuak kale neurketan lortutakoekin alderatuko ditugu.

Euskararen ezagutza eta erabilera Otxandion ehunekotan




Honen arabera, ondokoa dugu euskararen erabilera Otxandioko euskaldunen artean:

Euskaldunen hizkuntza erabilera kalean (haurrak)




■ Kalean erdaraz aritzen diren euskaldunak
■ Kalean euskaraz aritzen diren euskaldunak

Euskaldunen hizkuntza erabilera kalean (helduak)




■ Kalean erdaraz aritzen diren euskaldunak
■ Kalean euskaraz aritzen diren euskaldunak

Euskaldunen hizkuntza erabilera kalean (gazteak)



■ Kalean erdaraz aritzen diren euskaldunak
■ Kalean euskaraz aritzen diren euskaldunak

Euskaldunen hizkuntza erabilera kalean (zaharrak)



■ Kalean erdaraz aritzen diren euskaldunak
■ Kalean euskaraz aritzen diren euskaldunak


3. EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

3.1. Etxeko hizkuntz erabilera

3.1.1. Etxeko hizkuntz erabilera 5 urtetik gorako biztanleetan²

	1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	608	57	500	48,8	453	46,35
Euskara eta gaztelania	169	15,8	236	23	193	19,75
Gaztelania	287	27	289	28,2	329	33,7
Besterik	3	0,3	0	0	2	0,2
Orotara	1067	100	1025	100	977	100

Etxeko hizkuntz erabilera



Euskarari dagokionez, etxeko erabileran beherakadarik handiena 1991-1996 bitartean gertatu zen Otxandion (etxean euskara %57k erabiltzetik %48,8k erabiltzera igaro zen, hots, %8,2ko beherakada). Hurrengo bost urteetan joera hori motelagoa izan arren, beherantz jarraitu zuen (%2,45eko jaitsiera). Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen artean 1991tik 1996ra %7,2ko igoera dago, eta ondoren %3,25eko jaitsiera. Gaztelaniaren kasuan etengabeko goranzko joera dugu eta gero eta azkarragoa (%1,2ko igoera 1991tik 1996ra eta %5,5eko igoera hurrengo bost urteetan).


Datuon irakurketatik ondorioztatzen da familian 1991n euskaraz hitz egiten zuen hainbat hiztunek 1996an bi hizkuntzak erabiltzen zituela. Bi hizkuntzak erabiltzen zituztenen beherakadak 2001ean euskara erabiltzen zutenen gorakadarik ez eragin izateak iradokitzen digu gaztelania hutsean aritzera pasatu zirela, eta horren adierazgarri da gaztelaniaz hitz egiten zutenen gorakada 2001ean. Urteotan euskara erabiltzen zutenen kopuruaren beherakada ez da azaltzen, hortaz, biztanleriaren gutxitzearekin.

² Euskal Herriko hizkuntza adierazleen sistemak ez ditu biltzen 1986ko datuak

3.1.2. Etxeko hizkuntz erabilera familiako euskaldunak %25 baino gutxiago direnean


	1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	0	0	2	2,2	0	0
Euskara eta gaztelania	3	3,2	5	5,55	5	4,7
Gaztelania	91	96,8	83	92,2	100	93,45
Besterik	0	0	0	0	2	1,9
Orotara	94	100	90	100	107	100

**Etxeko erabilera 1991n
(euskaldunak %25>)**




■ Gaztelania ■ Euskara eta gaztelania ■ Euskara

**Etxeko erabilera 1996an
(euskaldunak %25>)**



■ Gaztelania ■ Euskara eta gaztelania ■ Euskara

**Etxeko erabilera 2001ean
(euskaldunak %25>)**




■ Gaztelania ■ Euskara eta gaztelania ■ Euskara

Gehienbat erdaldunak diren familietan, aurrean zitekeen bezala, gaztelaniarako joera da nagusi. Hala ere, euskararen presentziarik ere bada kasu batzuetan (ehunekotan gorabeherarik izan bada ere, kopuruen aldaketa ez da esanguratsua). Bestalde, kontuan hartu behar da litekeena dela familia horietan euskaldun bakarra izatea, eta beraz, euskaraz hitz egiteko aukerarik ez izatea.


3.1.3. Etxeko hizkuntz erabilera familiako euskaldunak %25-44 direnean

	1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	3	4,1	0	0	0	0
Euskara eta gaztelania	5	6,85	10	14,9	5	9,1
Gaztelania	62	84,9	57	85,1	50	90,9
Besterik	3	4,1	0	0	0	0
Orotara	73	100	67	100	55	100


**Etxeko erabilera 1991n
(euskaldunak %25-44)**



Etxeko erabilera 1996an (euskaldunak %25-44)



**Etxeko erabilera 2001ean
(euskaldunak %25-44)**




Euskara eta gaztelania erabiltzen dituzten biztanleen proportzioak 1991tik (%6,85) 2001era (%9,1) gora egin badu ere, hiru gauza dira azpimarratzekoak: lehenik, 1991tik 2001era doan hamarkadan kopuru osoak ez duela gora egin (5) portzentajeak gora egin arren. Bigarrenik, 1996tik behera egin dutela bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen kopuru osoak nahiz proportzioak. Azkenik, eta agian esanguratsuena, familia batean dauden euskaldunen proportzioa ez datorrela bat euskarak familia horretan duen presentziarekin (familiako euskaldunak %25 edo gutxiago direnean euskara eta gaztelania erabiltzen duten biztanleak %4,7 dira azken datuen arabera; euskaldunak %25-44 bitartean direnean, euskara eta gaztelaniaz mintzatzen diren biztanleak %9,1 dira). Familietan gaztelania hutsez aritzen diren kideen kopuruak behera egin du mota honetako familian ehunekotan gora egin arren. Hala, 1991n gaztelania hutsez 62 biztanle aritzen ziren, %84,9; 1996an, 57 (%85,1); 2001ean, azkenik, 50 (%90,9).


3.1.4. Etxeko hizkuntz erabilera familiako euskaldunak %45-59 direnean

	1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	0	0	1	1,85	8	8,6
Euskara eta gaztelania	13	18,85	9	16,65	19	20,4
Gaztelania	56	81,15	44	81,5	66	71
Besterik	0	0	0	0	0	0
Orotara	69	100	54	100	93	100


Etxeko erabilera 1991 (euskaldunak %45-59)



Etxeko erabilera 1996an (euskaldunak %45-59)



Etxeko erabilera 2001ean (euskaldunak %45-59)




Familiako euskaldunak erdiak inguru direnean, euskararen presentzia indartu egin da modu apalean bada ere. Euskara hutsez inor ez mintzatzetik %8,6 mintzatzera igaro da bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen kasuan %18,85etik %20,4ra igo dira. Mota honetako familietan gaztelania hutsez aritzen direnen portzentajeak behera egin du (81,5etik %71ra 1996-2001 bitartean). Hala ere, kopuru aldetik kontrako joera antzematen da (44tik 66ko igoera). Etorkizunerako garrantzitsua izango da kontuan hartzea mota honetako familietan bizi diren biztanleen kopuruak nabarmen egin duela gora azken urteetan eta hain zuzen ere familia mota honetan hazi dela gehien gaztelania hutsez aritzen direnen kopurua).


3.1.5. Etxeko hizkuntz erabilera familiako euskaldunak %60-80 direnean

	1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	86	38,55	42	17,2	41	18,6
Euskara eta gaztelania	79	35,4	121	49,6	97	44,1
Gaztelania	58	26	81	33,2	82	37,3
Besterik	0	0	0	0	0	0
Orotara	223	100	244	100	220	100


Etxeko erabilera 1991 (euskaldunak %60-80)



Etxeko erabilera 1996an (euskaldunak %60-80)



Etxeko erabilera 2001ean (euskaldunak %60-80)




Familian bostetik 3 edo 4 direnean euskaldunak, euskararen erabilerak nabarmen egiten du gora. Hala ere, 1991tik 2001era bitarteko hizkuntz bilakaerari erreparatuta, euskara hutsez aritzen direnen kopurua zein portzentajea erdira jaitsi dira: 1991n 86 ziren euskara hutsez mintzatzen ziren biztanleak, %38,55; 1996an, kopuru hori erdia baino gutxiagora jaitsi zen, 42 kidera, hain zuzen (%49,6); 2001ean, azkenik, 1996ko kopurua mantendu zen (41 kide, %18,6). Mota honetako familian euskaraz eta gaztelaniaz baliatzen direnen kopurua gorabeheratsua izan da aztertzen ari garen hamarkadan; 1991 eta 1996 bitartean gorakada handia izan bazen ere (%35,4tik %49,6ra), hurrengo bost urteetan joera beheranzkoa izan da (%49,6tik %44,1era). Azkenik, gaztelania hutsez aritzen direnen gorakada aipatu behar da (%26tik %37,3ra hamar urteko epe horretan).

3.1.6. Etxeko hizkuntz erabilera familiako euskaldunak %80 baino gehiago direnean


	1991		1996		2001	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Euskara	519	85,4	455	79,8	404	80,5
Euskara eta gaztelania	69	11,35	91	15,95	67	13,35
Gaztelania	20	3,3	24	4,2	31	6,2
Besterik	0	0	0	0	0	0
Orotara	608	100	570	100	502	100

Etxeko erabilera 1991 n
(euskaldunak %80<)




Legend: ■ Gaztelania ■ Euskara eta gaztelania ■ Euskara

Etxeko erabilera 1996an
(euskaldunak %80<)



Legend: ■ Gaztelania ■ Euskara eta gaztelania ■ Euskara

Etxeko erabilera 2001ean
(euskaldunak %80<)




Legend: ■ Gaztelania ■ Euskara eta gaztelania ■ Euskara

Ezaugarri hauek dituen familietan bizi den kide kopuruak orain arte ikusi dugun beherakadarik handiena ezagutu du 1991 eta 2001 bitartean (608 izatetik 502 izatera). Galera hori euskara hutsez hitz egiten dutenen artean antzematen da (519 hiztunetik 404ra). Euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen kopurua mantendu egin da, eta gaztelania hutsez aritzen direnenak gora egin du 20 hiztunetik (%3,3) 31 hiztunera (%6,2).

3.1.7. Etxeko erabileraren tipologia hiztun ereduaren arabera

		1991		1996		2001	
		kopuru a	%	kopuru a	%	kopuru a	%
Euskaldun zaharrak	aktiboak euskaraz	594	64,6	491	55,9	437	52,8
	aktiboak bietan	95	10,3	160	18,2	89	10,8
	pasiboak euskaraz	26	2,8	32	3,6	49	5,9
Jatorrizko elebidunak	aktiboak euskaraz	9	1	5	0,6	9	1,1
	aktiboak bietan	34	3,4	34	3,9	64	7,7
	pasiboak euskaraz	17	1,85	15	1,7	13	1,6
Euskaldun berriak	aktiboak euskaraz	5	0,55	2	0,2	7	0,85
	aktiboak bietan	8	0,9	6	0,7	12	1,45
	pasiboak euskaraz	40	4,35	48	5,5	53	6,4
Partzialki euskaldun berriak	aktiboak euskaraz	0	1,5	0	0	0	0
	aktiboak bietan	14	1,5	12	1,4	15	1,8
	pasiboak euskaraz	47	5,1	40	4,55	57	6,9
Partzialki erdaldunduak	aktiboak euskaraz	0	0	2	0,2	0	0
	aktiboak bietan	18	2	24	2,7	13	1,6
	pasiboak euskaraz	12	1,3	8	0,9	9	1,1
Orotara		919	100	879	100	827	100

Etxeko hizkuntza erabilera hiztun ereduaren arabera




1991 eta 2001 urteen artean doan hamarkadaren bilakaerari erreparatzen badiogu, euskaraz dakitenen kopurua ia ehun pertsonatan (%10) jaisteaz gainera, euskaldunen tipologia aldatzen doa. Hiztun aktiboak euskaraz pisua galdu du etengabe; euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak diren hiztunek gora egin zuten 1991 eta 1996 artean.

Hurrengo bost urteetan, ordea, joera horrek ere buelta eman du. Euskaraz hiztun pasiboak direnen multzoa da etengabe gorantz jarraitu duen bakarra: 1991n %15,4 ziren hiztun pasiboak euskaraz; 1996an %16,25; 2001ean, azkenik, %21,9. Honek esan nahi du euskaldunen artean ere gero eta gutxiago direla produzitzen dutenak nahiz produzitzeko gai direnak.

3.2. Irakaskuntza


Otxandion eskola bakarra dago (Otxandio LHI); haur hezkuntza eta derrigorrezko lehenengo hezkuntza irakasten dira bertan. Izaera publikoa duen eta euskalduntze programan murgilduta dagoen eskola honetan gaur egun euskara hutsean soilik eskaintzen dira eskolak (hots, D ereduan) nahiz eskolaz kanpoko ekintzak. Jarraian, hogeitaz urteren buruan bi irakasmaita horietan matrikulazioek izan duten bilakaera ikusiko dugu. Hala, irakaskuntza ereduaren datuez gain, Otxandioko belaunaldi berriei buruzko datu demografikoetarako hurbilketa bat egingo dugu.

3.2.1. Haur hezkuntzaren bilakaera (1983/84-2003/04)



Otxandioko haur hezkuntzan ez da 1983tik D ez den beste eredurik irakatsi (ez dugu aurreko urteetako datuak aurkitzerik izan). Bestalde, esanguratsua da 1983tik 1995era haurren eskolaratzeak izan duen beherakada haur hezkuntzan, jaiotza tasaren beheranzko joera dela eta. 1983-1984 ikasturtean 58 haur matrikulatu zituzten haur hezkuntzako D ereduan; hurrengo sei urteetan hutsera iristerainoko beherakada jo zuten matrikulazioek; 1996tik 2004ra, ordea, berriro ere goranzko joera hartu du matrikulazioak, 1991-1992 urtealdikoa baino matrikulazio kopuru handiagoarekin. Modu horretan, eskola bidezko euskararen transmisioa ere segurtatu egiten da. Bide batez, herriko haur guztiak zentro berean aritzeak ikasten haien arteko harremana euskaraz izatea bultzatzen du.

3.2.2. Lehenengo hezkuntzaren bilakaera A eta D ereduetan (1983-2004)







Lehenengo hezkuntzaren bilakaera aztertu aurretik, aipatu beharra dago irakaskuntza sistema aldaketak ekarri zuela *Oinarrizko Hezkuntza Orokorra* zena *Derrigorrezko Lehenengo Hezkuntza* bilakatzea. Sistema horretara egokitu beharrak 12-14 urte bitarteko ikasleak galtzea ekarri zion Otxandioko eskolari, 93-94 ikasturtean. Hala ere, grafikoari begiratuta, ez dirudi horrek eragin hain nabarmena izan zuenik. Haur hezkuntzari buruzko datuak bat datoz hemen ikusten dugunarekin: haurren matrikulazioak puntu baxuena izan zuen 95-96 ikasturtean. Handik bost urtera gutxitze horren eragina lehenengo hezkuntzara pasatzen da eta aurreikus daiteke hemendik aurrera egoeraren hobekuntza izango dela.

3.2.3. Helduen euskalduntze eta alfabetatzea


2002-2003 ikasturtetik aurrera urtero eskaini dira euskara klaseak hala nahi duen herritar orok euskalduntzeko aukera izan dezan. Lehenengo urtean 28 ikasle matrikulatu ziren hiru maila ezberdinetan. Bigarren urtean, kopuru hori erdira jaitsi zen eta azken urtean izena eman zuten 11 ikasleetatik 6k bukatu dute ikastaroa. Ikasleen kopuru txikiak talde berean oso ezagutza maila ezberdinetakoak biltzera behartzen du. Horrek, batetik, talde dinamika zaildu egin du eta bestetik, euskaltegiek taldeak bere gain hartzea eragotzi.

4. ADMINISTRAZIOA ETA EUSKARA

4.1. Udaltzatzen osaera: alderdi politikoen ordezkartza

	Alderdia	Boto kopurua	Botoen %	Zinegotzia
	BATIA herri plataforma	338	48,9	5
	EAJ/ PNV-EA	336	48,6	4
	PP	14	2	0
	PSOE	3	0,4	0
	Beste batzuk	0	0	0

Otxandioko udaltzata bederlatzi zinegotzik osatzen dute, guztiak ere alderdi abertzaleetakoak (alkatea eta lau zinegotzi, *Batia* herri plataformakoak; beste lau zinegotzi EAJ-EA koaliziokoak). Bestalde, zinegotzien %100 da euskalduna.



4.2. Derrigortasun indizea eta hizkuntz eskakizunen betetze maila

Kopurua	Izendapena	HE	Derrigortasun data
Funtzionarioak			
1	Idazkari kontu-hartzailea	4	1994/12/31
1	Administrari laguntzailea	3	1994/12/31
Lan itunpeko langileak			
1	Liburuzaina	4	1994/12/31
2	Mantenu langilea	2	1994/12/31
1	Administrari laguntzailea	3	1994/12/31
2	Garbitzailea	1	1994/12/31
Otxandioko egoitza (erakunde burujabea)			
1	Zuzendari kudeatzailea	3	1994/12/31
Epealdi baterako lan itunpeko langileak			

1	Administrari laguntzailea	3	1994/12/31
---	---------------------------	---	------------

Orotara hamar dira Otxandioko Udalean lanean ari direnak. Horietatik bakarra da hizkuntz eskakizuna betetzen ez duena, adinagatik ez dagoelako behartuta. Gainontzeko guztiek eskatzen zaien hizkuntz eskakizuna betetzen dute.

4.3. Euskarari bideratutako aurrekontuak

Euskarari bideratutako diru kopurua 4.928,30 €koa izan zen 2002an. Kopuru hori haziz joan da azken bi urteetan (5.824,76 €2003an eta 7.150 €2004an).

4.4. Euskarari bideratutako azpiegitura: Euskara Batzordea

Otxandion ez dago euskara zerbitzurik ez euskara teknikaririk eta lan hori, ahal duen neurrian Euskara Batzordeak betetzen du. Batzorde hau oraintsura arte Kultura Batzordearen azpisaila izan da eta azken legegaldi honetan batzorde beregain bihurtzea erabaki zen. Hainbat dira Batzorde honen sorreratik euskara bultzatzeko egindako lanak, eta horien artean honakoak azpimarragarriak:

- ⇒ Otxandioko toponimia bildu (herritarren ekimenez sortutako lan horrekin jarraitzeko aurten toponimia ikertzeko beka sortu du Udalak Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean).
- ⇒ Kale erabileraren neurketa herriko kultur taldeekin elkarlanean.
- ⇒ *Inkernuz* euskarazko herri aldizkaria sortu.
- ⇒ Hitzarmen espezifikoak ostalaritzarekin.
- ⇒ Hitzarmen espezifikoak *Vulcano* kirol taldearekin.
- ⇒ Udal administrazioa euskalduntzeko araudia.
- ⇒ Bestelako kultur ekimenak (hitzaldiak, Gazte Asanbladarekin antolatutako bertso afariak, e.a.).

Euskara Batzordeak aurrera begira ezarritako helburu nagusiak hauek ditugu:

- ⇒ Herri komunikabideetan erabiliko den hizkeraren arauak adostu.
- ⇒ Orain arte egindako hitzarmenen ebaluazioa.
- ⇒ Hitzarmengintza merkataritzaren arlora zabaldu.

5. EUSKARAREN ELIKADURA: KOMUNIKABIDEAK

Otxandiok, Arratia Nerbioi eskualdean egonda ere, zerbitzu batzuk Durangoko merinaldearen bidez jasotzen ditu: horietako bat *Anboto* astekaria dugu. Astekari horrek 8.000 aleko tirada du eta doan banatzen zaie eskaera egiten dutenei. Otxandion bertan ere Euskara Batzordearen *Inkernuz* eta Gazte Asanbladaren *GAZTE PrENTSA* aldizkariak, eta presoen aldeko taldearen *Alkartzen* berripapera banatzen dira. Lehenengo biak euskara hutsez eta hirugarrena ere euskaraz nagusiki.

6. AMIA analisisa

6.1. Ahuleziak

- Otxandion euskarak duen ahuleziarik handiena erabileran datza: euskaldunen portzentajeak jasandako beherakada ez bada oso handia ere, euskara lehen hizkuntzatzat dutenen hiztunen kopurua nabarmen jaitsi da. Otxandioko euskaldunen artean haziz doa euskaldun pasiboen kopurua eta jaitsiz aktiboena.
- Otxandioko biztanleen erdiak baino ez dira bizi euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa den familietan.
- Ez dago Euskara Zerbitzurik ez euskara teknikaririk.
- Gertuen dagoen DBHko ikastetxean eremu oso erdalduneko ikasleekin (Gasteizekoekin) elkartzen dira Otxandioko ikasleak.

6.2. Mehatxuak

- Mehatxuetan ere erabilera dugu beharbada arriskurik handiena; izan ere, euskara lehen hizkuntzatzat dutenen beherakadaren parekoa dugu gaztelania lehen hizkuntzatzat dutenen gorakada 1991tik 2001era bitartean.
- Oso kontuan hartu beharreko beste mehatxu bat euskararen ondorengoetaratzean dugu: betidanik euskararena izan den familiako esparrua galtzen ari da abiadura handiz.
- Haurren eta gazteen euskararen ezagutza mailan azken bosturtekoan izandako beheranzko joera kontuan hartu beharra dago etorkizunera begira.
- Herriaren hazkuntza azkarraren eraginez heltzen diren biztanleen hizkuntz gaitasunak eta hizkuntz ohiturek izan dezaketen eragina erabakigarria izan daiteke datozen urteetan.
- Etxeko euskaldunen dentsitatea %25 baino gutxiagokoa den familietan bizi diren biztanleen kopuruak gora egin du eta nabarmen jaitsi da %80 baino gehiagokoetan bizi direnena.

6.3. Indar guneak

- Indar-gune garrantzitsuena haurren (>14) eta gazteen (15-24) euskararen ezagutza maila dugu.
- Irakaskuntzan D eredia soilik izatea eragile garrantzitsua da haurren euskara jabekuntza bermatzeko.
- 24 urtetik beherakoetan euskaldunak %91,9 dira.
- Otxandioko biztanleen %75 euskalduna da eta horietatik gehienak (%82) euskaldun zaharrak.

- Hamarretik seik euskara lehen hizkuntzatzat dute eta horrek eragina izan dezake ez dakitenek ikasteko motibazioan.
- Prentsa idatzi ugari dago, ia erabat euskarazkoa.

6.4. Aukerak

- Herriaren hazkuntza ikusita, eta hazkuntza hori azpiegitura aldetik eragiten ari den eta eragingo dituen inbertsioak, administrazioak aukera hori balia dezake enpresa ezberdinek egiten dizkioten eskaerak, eskaintzak, aurrekontuak, e.a. euskaraz eskatzeko.
- Herrian dagoen euskaldun kopuru altua hartuta kontuan, garrantzitsua da Udaleko langileez gain, azpikontratu bidez edo udalarenak diren guneetan lan egiteko baldintza gisa jartzea langile guztiak euskaldun aktiboak izan daitezela.
- Udalak diruz lagundutako herriko ekimen guztietan lehenetsi beharko litzateke euskararen erabilera.
- Horrela eginez gero, gainera, Udalak zilegi izango luke herrian establezimendu berriren bat irekitzeko asmoa luketenei bezeroarekiko harremanetan euskarazko zerbitzua berma dezaten eskatzea merkataritzako hizkuntza eskubideen legeari jarraiki (6/2003 abenduaren 22ko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuko 37. artikulua).

7. ONDORIOAK

Azterketa hau 1981 eta 2001 bitarteko datuak hartuta kontuan egin da. Epealdi horretan biztanle kopurua nabarmen jaitsi da Otxandion (%17,2). Hala ere, beheranzko joera hori aldatu edo gutxienez motelduko duten faktore bi ikusten ditugu: lehena jaiotza tasaren hazkundera azken urteetan (2001ean 0-4 urte bitarteko haurrak 5-9 bitartekoak baino gehiago dira); bigarren faktorea 2001etik aurrera eraikitako 135 etxebizitzaren eragina dugu. Bigarren faktore horrekin lotuta oso kontuan hartzekoak izango dira aurreikusten den inmigrazio horren hizkuntz ohiturak.

Hazkuntza negatibo horren arrazoia ez da migrazioa (migrazioaren eraginez biztanleen %1,2 soilik jaitsi baita 1991tik 2001era doan hamarkadan), biztanleriaren zahartzea baino EAEko joera orokorrari jarraituz. Otxandion eskualdeko biztanleriaren batez besteko adina gaintzen da (19 urtetik beherako kopurua eskualdean baino %2 baxuagoa da eta 65 urtetik gorakoena, berriz, %4 altuagoa).

Biztanleria eskualdekoa baino zaharragoa izatea eta jatorriz euskaldunak diren proportzioa handiagoa izan daiteke Otxandion euskaldun alfabetatuen kopurua Arratia Nerbioiko batez bestekoaren azpitik egotearen arrazoia. Ezaugarri honek berak (jatorrizko euskaldunen proportzio altuak) egiten du, hala ere, ahozko komunikazioa bultzatzeko baldintza egokiak izatea.

Bestalde, adin batetik gorako herritarren hizkuntz ohiturak aldatzea zailagoa izango da (datu hau kezagarria da, kontuan hartuta 2001eko kale neurketaren arabera, 65 urtetik gorako artean 10etik 3 baino ez zirela euskaraz aritzen ikusita).

Ildo beretik, oso garrantzitsua da 25-64 urte bitarteko biztanleengan eragin dezaketen plangintzak garatzea. Izan ere, adin tarte horretan dugu euskara ez dakitenean kopuru altuena (erdaldunen % 59,1). Erabilera aldetik ere 65 urtetik gorako artean baino datu kezagarriagoak ikusten ditugu (%84,5 aritzen da gaztelaniaz) eta pisu demografiko handia duen adin taldea dugu (Otxandioko biztanleriaren %51). Bestalde, kontuan hartu behar dugu giltzarri direla hizkuntzaren ondorengoetartzean.

Hala ere, ezin dugu ahaztu gazteei begirako plangintza, haiek dira eta neurri batean gazteagoen eredu eta aldi berean, erabilerari dagokionez, datu izugarrienak azaltzen dituztenak (2001eko datuen arabera, %6,5ek baino ez du erabiltzen euskara kalean).

Haurren erabilera maila da altuena, eta hala ere, kezagarria izaten jarraitzen du; hamar umetik sei mintzatzen dira kalean gaztelaniaz. Arazoa argi eta garbi dago erabilera ohituretan eta ez ezagutza mailan. Izan ere, haurren %85,4 dira euskaldunak (kopuru hori %95,2ra igotzen da euskaldunen kopuruari ia euskaldunena gehitzen badiogu). Euskaldunen portzentaje altu hori Otxandion eskola bakarra egoteak eta beraz D eredu hutsekoa izateak bermatzen du; 1985-1986 ikasturtean desagertu zen ordura arte D ereduarekin batera zegoen A ereduak. 1983-1985 bitarteko datuek ere D ereduaren nagusitasuna erakusten dute A ereduaren aurrean. Horrek esan nahi du Otxandion ikasi duten gazte guztiak (20 urtetik beherako denak, behintzat) euskaldun eta alfabetatuak direla.

Eskolak, hortaz, bermatzen du euskararen ondorengoetartzea. Eginkizun horretan bigarren zutabea (eta garrantzitsua) familia dugu. Etxeko hizkuntz erabileran euskarak behera egin du etengabe 1991tik aurrera. Beherakada handiena 1991-1996 bitartean gertatu zen. 1996-2001 bitartean joera hori moteldu egin zen, baina beherantz jarraitu zuen. Horren parean gaztelaniaren etengabeko igoera (kasu honetan gero eta

azkarragoa) gertatu da. Datuek erakusten dutenez, joera honen arrazoia ez migrazioan, hizkuntz ordezkatzean baizik. Hala, 1991n etxean euskaraz hitz egiten zuten hainbat hiztun 1996an euskaraz eta gaztelaniaz mintzatzen ziren. 1996 eta 2001 artean, berriz, etxean hizkuntza biak erabiltzetik gaztelania hutsean aritzera pasatu zen hainbat hiztun.

Hizkuntz ordezkatzeari norabide bietan gertatzen da: euskaldunak %59 baino gutxiago diren familietan euskara indartu egin da azken hamar urteetan (hau da, gaztelania hutsez aritzen diren hiztunen kopuruak behera egin du). Euskaldunak %60 baino gehiago diren familietan, ordea, joera kontrakoa da: azken urteetan familian gaztelania hutsez egiten dutenen kopuruak gora egin du.

Hortaz, euskaldunaren tipologia aldatu egin da: euskaldun aktiboak izatetik euskaldun pasibo izatera pasatu dira hainbat hiztun. 1991tik 2001era euskararen normalizazioa eten egin da. Erdaldun elebarraren kopuruak ez du behera egin eta euskaldun aktiboenak, berriz, beherakada handia izan du. Euskaldun aktiboen beherakada honen atzean faktore bi ditugu: hizkuntz ordezkatzeari eta jaitsiera demografikoa. Jaitsiera demografiko horren bigarren ondorio bat zera da: erdaldun elebarraren kopurua ez aldatzeak haien pisu demografikoa (eta hortaz, hizkuntzan izan dezaketen eragina) gehitu egiten duela.

Aipatutako hizkuntz ordezkatzeari beste adierazle bat lehenengo hizkuntza euskara dutenen beherakadan aurkitzen dugu: 1996tik 2001era gaztelania lehenengo hizkuntzatzat dutenen kopuruak gora egin du (34 hiztun gehiago); euskara eta gaztelania lehenengo hizkuntzatzat dutenen kopurua ere 32 hiztunetan hazi da. Epe berean euskara lehen hizkuntzatzat zutenen kopurua 117 pertsonatan gutxitu da. Kontuan izanik biztanleriaren beherakada ez dela horren nabarmena izan (48 pertsonakoa 1996 eta 2001 bitartean) eta migrazio mugimenduek ere ezin izan dutela halako ondorioz eragin (15 biztanlek egin zuten alde Otxandiotik epe horretan eta 17 heldu ziren), ondorioa garbia da: lehenengo hizkuntza gaztelania edo gaztelania eta euskara dutenen gorakada lehenengo hizkuntzatzat euskara soilik zutenen beherakadaren kontura gertatu da.

Laburbilduz, eta 2001eko datuei erreparatuta, hizkuntza gaitasun altua Otxandioko biztanleen %77,3k daukan arren, %60,7k soilik du euskara lehen hizkuntza; etxean %66k hitz egiten dute euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, eta kalean biztanleen %22k soilik hitz egiten dute euskaraz.

Lan arloari dagokionez, euskararen erabilera bultzatzeko plangintza estrategikoa diseinatzeko oso kontuan hartu behar da Otxandion lan egiten dutenen erdiak baino gehiago manufaktura arloan ari dela. Horrez gain, ostalaritzan eta merkataritzan ari direnak hartzen baditugu kontuan, Otxandioko lan munduaren %67ra helduko gara. Honek eragin handia izan dezake herrian, besteak beste, kontuan hartuta otxandiotar gehienek herrian bertan egiten dutela lan.

Udaleko langileak 10 dira orotara. Horietatik bakarra da dagokion hizkuntz eskakizuna betetzen ez duena (adinagatik salbuetsita dago eta). Beraz, arreta euskaraz jaso dezake hala nahi duenak. Horrez gain, eta euskararen erabilerarekin lotuta, Euskara Batzordeak Udal Administrazioa euskalduntzeko araudia diseinatu du.

Euskara Batzordeak betetzen du ahal duen neurrian euskara zerbitzuaren eta euskara teknikariaren lana. Horrela, abian dira kultur taldeekiko eta ostalaritzarekiko hitzarmenak, toponimia biltzeko beka eta beste hainbat ekimen.

Euskararen elikaduran garrantzitsua da herriko eta eskualdeko prentsa idatziak daukan garrantzia eta euskalduntze planean eragile bezala bete dezakeen rola. Hala ere, baliabide honen indarra mugatua da, kontuan hartzen bada guztiz alfabetatuak

euskaldunen %54 baino ez direla (kopuru hori euskaldunen %85era iristen den arren erdizka alfabetatuak hartzen baditugu kontuan).

Bukatzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea Otxandioko euskararen egoerak ez duela joera konstantea erakusten eta 1991ra arteko datuak nahiko onak badira ere, urte horretatik aurrera euskararen atzerakada bizia dugu. Joera horri eutsiz gero, datozen urteetan euskarak, haren ezagutza mantendu edo gora egin arren, eguneroko erabileratik desagertzeko benetako arriskua dauka.

Joera horri aurre hartzeko, beharrezkoa da plangintza bat garatu eta bultzatzea epe laburrean. Lan horretan aldeko faktore garrantzitsu bi hartu behar ditugu aintzat: batetik, herriaren tamainak biztanle guztiengana heltzea errazten du; bestetik, bizitasun handiko herria izateak hainbat eragile inplikatu ahal izatea dakar.

8. *Glosarioa*

Elebidun hartzaileak: euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin ez arren, ondo ulertu edo irakurtzen dutenak.

Erdaldun elebakarrak: euskaraz batere ulertzen ez dutenak.

Erdaldun zaharra: ama hizkuntza erdararen bat izan eta ez euskaraz hitz egin ez ondo ulertu ez irakurtzen ez duen hiztuna.

Etxeko hizkuntza: etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

Euskaldun berria: ama hizkuntza erdararen bat izan eta euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duen hiztuna.

Euskaldun zaharra: ama hizkuntza euskara izan eta euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duten hiztuna.

Euskaldunak: euskara ondo ulertu eta hitz egiten dutenak.

Gaztea: 15-24 urte bitarteko biztanlea.

Gutziz erdaldundua: ama hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz hitz egin ez, ondo ulertu ez eta irakurtzen ez duen hiztuna.

Haurra: 14 urtera arteko biztanlea.

Heldua: 25-64 urte bitarteko biztanlea.

Hiztun aktiboa: hizkuntza jakin batean jaso zein sortu egiten duena.

Hiztun hartzailea: hizkuntza jakin batean jasotzeko bai baina sortzeko gai ez den hiztuna.

Hiztun pasiboa. hizkuntza jakin batean jaso bai baina ez duena sortzen (hiztun hartzailea ez bezala, hiztun pasiboa gai izan daiteke hizkuntza horretan sortzeko).

Hizkuntza bilakaeraren tipologia: biztanleriaren hizkuntza bilakaera zer nolakoa izan den aztertzeko ama hizkuntzaren eta hizkuntza gaitasunaren gurutzaketan oinarritutako tipologia (HPS).

Hizkuntza gaitasuna: hizkuntzaren (euskararen) ezagutza zenbaterainokoa den jakiteko oinarritzko hizkuntz trebetasunak gurutzatzen dituen tipologia (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi).

Lehen hizkuntza: hiztunak erraztasun handienaz erabiltzen duen hizkuntza.

Partzialki erdaldundua: ama hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz nekez hitz egin edo hitz egiten ez badu, ondo ulertu eta irakurtzen duen hiztuna.

Partzialki euskaldun berria: ama hizkuntza erdararen bat izan eta euskaraz nekez hitz egin edo hitz egiten ez badu, ondo ulertu eta irakurtzen duen hiztuna.

Zaharra: 65 urtetik gorako biztanlea.

9. Bibliografia

Durango merinaldea, *Merinaldearen egungo egoeraren diagnostikoa*, Durango, in www.euskadi.net.

Durango merinaldearen mankomunitatea, 2004, *Durango merinaldearen amankomunazgoko aisialdi elkarteak*, Durango.

Euskal herriko hizkuntza adierazleen sistema in www.euskadi.net.

Eusko Jaurlaritza, 2004, *Kulturaren Euskal Plana*, Vitoria-Gasteiz.


Eusko Jaurlaritza, 2005, *III mapa soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz.

Eustat, euskal estatistika erakundearen datu basea in www.eustat.es.

Otxandioko Euskara Batzordea, 2001, “Zelan egiten da berba Otxandion?”, *Inkernuz* 1, Otxandio.

Sei euskal soziolinguistika institutuaren ikerketak eta neurketak in www.sortu.org.

OTXANDIO



OTXANDIOraKO Euskararen plan estrategikoa ebpn-ri jarraiki (2006-2009)

Idurre Alonso Amezua
Iñigo Arteax Uriarte

AURKIBIDEA

1. Euskara ondorengoetaratzea 2

Irakaskuntza.....	
Euskalduntze-alfabetatzea.....	
Familia bidezko jarraipena.....	

2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza 5

Administrazioa.....	
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.....	
Enpresa mundua.....	
Aisia.....	
Kirola.....	
Erljioa.....	

3. Euskararen elikadura 11

Corpus plangintza eta euskararen kalitatea.....	11
Komunikabideak eta euskararen kalitatea.....	11
Liburugintza eta euskararen kalitatea.....	13
Publizitatea eta euskararen kalitatea.....	13
Kulturgintza eta euskararen kalitatea.....	14

Helburu estrategikoa	1– Euskara ondorengoetaratzea
-----------------------------	--------------------------------------

Esparrua	1.a– Irakaskuntza
-----------------	--------------------------

Neurria	1.a.03– Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.
----------------	--

Ekintza	
1.a.03/1 – Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan (inprimakiak, bilera aktak, zirkularra,...) euskara erabiltzeko laguntzak eskaini	
1.a.03/2 – Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini	
1.a.03/3 – Ikastetxeen errotulazioa era egokian jartzeko laguntza	
1.a.03/4 – Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta bestelako erakundeek (Europako Batzordeak, Europako Kontseiluak,...) hizkuntzak sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta dirulaguntzen berri eman	
1.a.03/5 – Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea	
1.a.03/7 – Ikasgelaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeari begira, Eusko Jaurlaritzak horretarako duen programaren berri ematea eta horretan parte hartzeko laguntza eskaini	
1.a.03/8 – Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini	

Neurria	1.a.06– Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu
----------------	--

Ekintza	
1.a.06/1 – Euskalgintzako taldeak bilduko dituen egiturak antolatu eta martxan jarri	
1.a.06/2 – Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Batzordean ikastetxearen presentzia bermatzea	

Esparrua	1.b– Euskalduntze-alfabetatzea
-----------------	---------------------------------------

Neurria	1.b.01– Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.
----------------	--

Ekintza	
1.b.01/1	– Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu
1.b.01/2	– Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleei euskara sendotzeko: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegiak, murgiltze ekintzak...
1.b.01/3	– Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaini
1.b.01/4	– Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea
1.b.01/5	– Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua
1.b.01/6	– Alfabetatze ikastaroak indartu eta jarduera esparruka identifikatutako
1.b.01/7	– Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzen motibatzea

Esparrua	1.c– Familia bidezko jarraipena
-----------------	--

Neurria	1.c.01– Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (hartzaindegiak, zaindariak...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.
----------------	---

Ekintza
1.c.01/1 – Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura inini
1.c.01/10 – Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko
1.c.01/12 – Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...)
1.c.01/2 – Euskararen erabilera ardatz nagusitzat izango duten guneak eratu
1.c.01/4 – Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurtzaindegiak edo haur-
1.c.01/5 – Haurrak izango dituzten bikoteei behar dituzten zerbitzuak eskaini (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa,...)
1.c.01/6 – Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1.c.01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1.c.01/8 – Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentiberatzeko jarduerak
1.c.01/9 – Euskara Batzordearen bitartez, hiru-lau urterako programa taxutu

Helburu estrategikoa	2– Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
-----------------------------	---

Esparrua	2.a– Administrazioa
-----------------	----------------------------

Neurria	2.a.01– Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.
----------------	--

Ekintza
2.a.01/1 – Agintariak ere programa hauetan inplikatu
2.a.01/10 – Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2.a.01/11 – Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2.a.01/12 – Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu
2.a.01/13 – Udalak egiten dituen obra kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2.a.01/14 – Udalak egiten dituen aholkularitza eta asistentzia kontratuetan hizkuntza-
2.a.01/2 – Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri
2.a.01/3 – Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini
2.a.01/4 – Euskaldun ororengana iristeko Komunikazio Plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.
2.a.01/5 – Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu
2.a.01/6 – Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzen jarraipenerako sistema bat antolatu
2.a.01/7 – Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzak definitu eta kaleratu eta jarraipenerako sistema bat antolatu
2.a.01/8 – Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri
2.a.01/9 – Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri

Neurria	2.a.04– Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.
----------------	--

Ekintza

2.a.04/1 – Euskara Zerbitzua eratu eta sendotu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

2.a.01/2 – Euskara Zerbitzuaren betebeharren arabera normalizatzaillearen betebeharrak definitu, HPSrekin batera.

2.a.01/5 – Euskara Zerbitzua sendotu, hizkuntza politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

Esparrua

2.c– Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Neurria

2.c.06– Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintza

2.c.06/1 – "Paperik gabeko" informatizaziorako udalen ahaleginetan, zerbitzuak euskaraz eskuragarri jarri

2.c.06/2 – Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini

2.c.06/3 – Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean

2.c.06/4 – Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza teknikoa eta diruzkoa eskaintzea

Neurria

2.c.07– Euskal kulturaren ondareari buruzko informazio digitalizatu eta hedatu.

Ekintza

2.c.07/1 – Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaltzea: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa...

Esparrua

2.d– Enpresa-mundua

Neurria

2.d.01– Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritzaganbarak, enpresariak eta enpresari elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintza

2.d.01/1 – Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini

2.d.01/2 – Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak...)

2.d.01/3 – Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko laguntza eskaini

2.d.01/4 – Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin

2.d.01/5 – Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu

2.d.01/6 – Sektoretako arduradunei (dendariei, tabernariei,...) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi

2.d.01/7 – Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin

2.d.01/8 – Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza teknikoa edo diruzkoa eman, ezarrita dauden irizpideekin bat etorriz

2.d.01/9 – Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri

Neurria

2.d.03– Kanpaina erraldoiak antolatu beharrian, banan-banako sentiberatzeko-jardunak egin industriad, merkataritza, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

Ekintza

- 2.d.03/1 – Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan banako sentiberatze jarduerak egin.
- 2.d.03/2 – Sindikatuak eta enpresa munduan eragina duten agenteekin egin lan euskara bultzatzen.

Esparrua

2.e– Aisia

Neurria

2.e.01– Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro.

Ekintza

- 2.e.01/1 – Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu
- 2.e.01/3 – Aisialdiko taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak hideratu
- 2.e.01/5 – Aisialdiko elkarten barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzea lagundu

Neurria

2.e.03– Euskararen aldeko ekintza soilen ordeaz, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira et ahizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintza

- 2.e.03/1 – Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
- 2.e.03/2 – Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu
- 2.e.03/3 – Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu
- 2.e.03/4 – Irteerak euskaraz antolatu
- 2.e.03/5 – Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu
- 2.e.03/6 – Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu
- 2.e.03/7 – Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatu

Esparrua

2.f– Kirola

Neurria	2.f.01 – Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.
----------------	--

Ekintza

2.f.01/1 – Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu

2.f.01/3 – Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea

2.f.01/4 – Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza

Neurria	2.f.02 – Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen “Denontzako Kirola” programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.
----------------	---

Ekintza

2.f.02/1 – Kirol taldeei zuzendutako diru-laguntzetarako deialdietan hizkuntza irizpideak ezarri

2.f.02/2 – Euskarazko taldeak osa daitezzen ikastetxe eta kirol taldeekin elkarlanean aritu

2.f.02/3 – Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza irizpideak ezarri

Neurria	2.f.05 – Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egin Eusko jaurlaritzarekin: langileak euskaldundu eta argitalpenetan eta elkarteenganako komunikazioan euskara erabili.
----------------	---

Ekintza

2.f.05/1 – Federazioen eta kirol taldeen euskararen normalizaziorako barne plangintzak egiteko laguntza eskaini

Esparrua	2.g– Erljioa
-----------------	---------------------

Neurria

2.g.03– Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeko eskatu elizbarrutiei

Ekintza

2.g.03/2 – Katekesi ekintzetan erabiltzen den euskarazko materiala zabaltzen laguntzea

2.g.03/3 – Laguntza eskaini euskarazko ekintzak aurrera eramateko

2.g.03/4 – Euskararen erabilera plana abian jartzeko laguntza eskaini (teknikoa, baliabideetan...)

**Helburu
estrategikoa**

3– Euskararen elikadura

Esparrua

3.a– Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

Neurria

3.a.03– Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintza

3.a.03/1 – Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorritik

3.a.03/2 – Hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaini

3.a.03/3 – Kasuan kasuko euskalkiaren azterketa linguistikoa egiteko laguntzak eskaini Euskaltzaindiaren arauak eta metodologia betez

3.a.03/4 – Merkatal guneetako hizkuntza-paisaia (denda, taberna, akademiak eta abarrekotakoan) euskararen presentzia txukundu eta areagotu

Esparrua

3.b– Komunikabideak eta euskararen kalitatea

Neurria

3.b.01– Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, bai euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintza

3.b.01/1 – Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea

3.b.01/2 – Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu

3.b.01/3 – Eskualde edo herri mailako komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzearen laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak

Neurria	3.b.02 – Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.
----------------	---

Ekintza
3.b.02/1 – Eskualde edo herri mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu diru-laguntzak
3.b.02/2 – Euskarazko herri edo eskualdeko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatu

Neurria	3.b.03 – Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.
----------------	---

Ekintza
3.b.03/1 – Eskualdean diharduten komunikabideen arteko elkarlana eta truke-lerroak eratzea sustatu
3.b.03/2 – Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatu

Esparrua	3.c– Liburugintza eta euskararen kalitatea
-----------------	---

Neurria	3.c.01 – Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketinga antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburu-denden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.
----------------	--

Ekintza

3.c.01/1 – Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan

3.c.01/2 – Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu

Neurria

3.c.04– Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarten artean.

Ekintza

3.c.04/1 – Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak...) harremanetan jarri eta urteko programa definitu

Esparrua

3.f– Publizitatea eta euskararen kalitatea

Neurria

3.f.01– Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako "inertzia", "errentagarritasun eza" eta "konnotazio negatiboak" neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.

Ekintza

3.f.01/1 – Publizitatea euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egin sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkarte, ostalarien elkarte,...)

Neurria

3.f.02– Herri-erakundeak euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

Ekintza

3.f.02/1 – Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman

Esparrua | **3.g– Kulturgintza eta euskararen kalitatea**

Neurria | **3.g.01–** Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintza

3.g.01/1 – Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea

3.g.01/2 – Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu

Neurria | **3.g.03–** Euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu.

Ekintza

3.g.03/1 – Euskaraz ulermena soilik duen publikoa erakartzeko kanpaina bereziak antolatu

Neurria | **3.g.04–** Administrazio guztien arteko loturak sendotu.

Ekintza

3.g.04/1 – Inguruko herriekin eskualdeko kultur zirkuituak antolatu

Neurria | **3.g.05–** Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintza

3.g.05/1 – Kultur jarduerak sorrarazten duten materialaren itzulpenak egiteko laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

3.g.05/2 – Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira

3.g.05/3 – Kultur taldeen antolakuntza bultzatu herrietan

3.g.05/4 – Herrian dauden kultur talde ezberdinak eta hauen lana ezagutarazi

3.g.05/5 – Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu

3.g.05/6 – Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri

3.g.05/7 – Euskal kultur produkzioa zabaldu eta ezagutarazi